


Euskararen ahuldadeak



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

Pandemiak euskararen ahuldadeak agerian utzi ditu. Bigen Zupiriak *dixit*. Ezin ados egon, ordea. Euskararekin erakundeek dauzkaten ahuldadeak utzi ditu agerian. Euskarak, izatekotan, indarguneak dauzka: dena kontra izan arren, euskaldunok geure biziraupenean tematzen garela, batez ere.

Sasoi honetan, urgentziak, eta urgentzietarako, erdara. Ez omen da hainbestetarako. Luze aritu gintezke zer den hizkuntza eta zergatik bere garrantzia ez datzan mezuen komunikazio soilean.

Praktikan, itzulpen hizkuntza da euskara, euskaldunok itzulpenik beharko bagenu bezala. Zorionez, euskaldunok, gutxienez, erdara bat ere ondo menperatzen dugu. Eta zorionez diot, hizkuntzak jakitea bere horretan aberastasuna delako. Hau ez dakiten bakanak beste hizkuntzarik ez darabilten elebakarrak izaten dira. Halakoxea da ezjakintasuna.

Eta, bai, dena itzuli behar izatea neketua da. Ondo dakit nik hori. Lan mundurako ekoizten dudak guztia, esaterako, kostaka ekoiztu ostean, gazteleratu egin behar dudalako webguneratu ordurako. Eta benetan da neketsua. Baina hala izan beharko da maiz, harik eta gure herria, oso-osorik, euskalduna izan arte. Momentu hori heldu bitartean, ia dena erdaratu beharko da, erdaldunek uler

dezaten, eurak baitira itzulpen premia daukatenak.

Erakundeek jokabidea, ordea, oso bestelakoa da: erdaraz funtzionatu, funtzionatzeko modu posible bakarra hori bailitzan, eta gerora euskaratu. Eta helburu bakar batekin, gainera: euskaldunok kexa ez gaitezen.

Gure kexa ez da, edo ez litzateke izan beharko, itzulpena egiteko denborarik daukazuen ala ez, gure kexa da zuen egitura, zuen funtzionamoldea, erdaraz dela. Beste guztia horren ondorioa baino ez da.

Ez dugu itzulpenik nahi. Erakunde euskaldunak nahi ditugu. Batzarrak euskaraz egiten dituztenak, txostenak euskaraz idazten dituztenak, herritarrokin euskaraz komunikatzen direnak. Eta, esan bezala, euskarazko gaitasunik ez daukaten horiekin, hizkuntzaz jabetzen diren artean, erdara erabiltzeko kapazak direnak.

Arestian apuntatu dudanez, hizkuntzak komunikatzeko balio digu, baina ez da komunikazio tresna hutsa. Hizkuntza gu geu gara; lengoaiagatik gara izaki humano eta, izan, hizkuntzan gara.

Beste pare bat kontu honi lotuta. Esaterako, ezin dut ulertu zergatik darabilten hainbat sukaldari euskaldun petok interneteko presentzia erdara hutsean.

Euskara bezerook erakartzeko modua ere bada! Ala baten bat uxatuko ote duen beldurragatik ezkututzen da euskalduntasuna? Hala balitz, pentsatu agian ez duela merezi gorroto gaituen jenderik gure etxera ekartzea.

Edota salgaien kasuan. Ortuari zorrozkilo bat erosi nuen aurrekoan. Hementxe, herriko dendan. Eta, hara!, Bergarako enpresa batek egina. Enpresaren izena euskaraz. Eta horra arte. Trastearen kaxan bost erdara aukeran.

Produktu bat saltzen denean, lotura emozionalak jorratzen dira, erosleok produktu edo marka horrekin identifikatzea bilatzen da ezeren gainetik. Hau da Bernaysen sasoietatik propagandaren helburua eta kontsumismoaren arima: produktua geu gara, geure luzapena. Horregatik, besterik ez bada ere, enpresek ulertu beharko lukete eurentzat ere onuragarria dela geure hizkuntza aintzat hartzea. Euren markari balio erantsia emateko modua ere badela euskara.

Hori eta, gauzak inoiz txarrerera badoaz, seguruenik ez dutela Alemaniara joko laguntza eske. Gugana etorriko dira, Txinan baino, berton eros dezagun. Eta orduan, akaso, erantzuna izango da berdin antzera digula ze erdaratan erosten dugun. ●